



Satelite bitartez banda zabaleko Internetera konektatzeko diru-laguntza

Epea: 2009ko urtarrilaren 1etik 2009ko abenduaren 31ra, edo laguntzak agortu arte.

Zertan datza?

Satelite bitartez banda zabaleko Internetera bi noranzkotara konektatzeko diru-laguntzak dira, bestelako estaldurarik ez duten eremuetarako.

Nor dira onuradunak?

Honako baldintzak betetzen dituzten pertsona fisikoak nahiz juridikoak: kontratatuko den konexiorako altaren **helbidea Nafarroan** egotea, eta zerbitzua **2009ko urtarrilaren 1etik abenduaren 31ra bitartean** kontratatzea.

Horrez gain, **2008**an halako konexiotarako diru-laguntzen **onuradunak** izan direnek, eta zerbitzua alta datatik gutxienez urtebeteko epean eusten badiote, gehienez ere 500 -ko (BEZ barne) diru-laguntza jaso ahal izanen dute 2008an eta 2009an.

Zenbateko diru-laguntza jasoko dut?

Banda zabala	Diru-laguntza (BEZ barne)
1 Mb	500 
2 Mb	600 

Zer hartzen du barne diru-laguntzak?

Konexioaren altaren kuota
Instalazio -kuota
Ekipamenduaren alokairua eta instalazio-gastuak
Hilabeteko kuota
Diru-laguntza beste operadore batzuen promozioekin (alta kuota eta doako modemak, kasu) bateragarria da.

Nola kontratatuko dut?

Zuzenean, Nafarroako Gobernuarekin **hitzarmena sinatu duen** edozein operadorearen bitartez. Gaur egun, bi operadoreak honako hauek dira:

Operadorea	Harremanetarako tel.
Iberbanda	1632
NET2	902 222 268

Operadoreak Nafarroako Gobernuari zerbitzua kontratatu duten pertsona guztien datuak emanen dizkio.

Kontratazioa eginda, operadoreak diru-laguntzaren zenbatekoa deskontatuko dio onuradunari.

Zein dira bete beharreko baldintzak?

Kontratazioarako baldintza orokorrak	Alta kontratatuko den helbidea , zeinera operadoreak deskontua jasoko duen faktura igorriko baitu, Nafarroan egonen da.
	Diru-laguntzaren onuraduna BEZa aitortzera derrigortuta badago, diru-laguntzari jasandako BEZari dagokion zenbatekoa kendu beharko zaio.
Kontratazio ondoko baldintzak	Internetarako konexioan gutxienez urtebetez egonen da alta emanda, diru-laguntza jasotzen denetik kontatzen hasita. Onuradunak epe hori baino lehen baja ematen badu, diru-laguntza itzuli beharko dio Nafarroako Gobernuari.
	Onuradunak isilpean gorde beharko ditu operadoreak zerbitzura sartzeko emanen dizkion erabiltzailearen izena eta pasahitza . Datu horiek besterenezinak dira. Pasahitza galdu edo lapurtuz gero, erabiltzaileak horren berri emanen dio zerbitzuaren hornitzaileari.
	Zerbitzua behar bezala erabiltzea. Bidegabe erabiltzea da honako hauetakoren bat: sarbide-mailak urratzen saiatzea, datuak oker erabiltzea, mezuak masiboki eta bereizi gabe igortzea, datuak edo informazio pribatua bikoiztea edo esportatzea, baita legez kanpoko beste edozein balizko ere.

Argibide gehiagotarako:

- www.navarra.es. Laguntzak eta bekak atalean.
- Nafarroako Aldizkari Ofiziala, 2009ko maiatzaren 29koa, 66. zk., 6.667. or.